

## 10. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure **OINARRIZKO BALIABIDEAK**, Baliabide fisikoak, baliabide intelektualak eta finantza-baliabideak. Gure enpresarako beharrezko baliabide desberdinak behar ditugu.

**Baliabide fisikoak:** Lanerako behar ditugun gauzak; ordenagailua, bulegoa. Gure bulegoa izango dugu guk lan egiteko eta horren barruan gure tresnak izango ditugu. Ordenagailuak lan egiteko, inprimagailuak, telebista proiektuak aurkezteko eta ondo ikusteko...

**Baliabide intelektualak eta Giza baliabideak:** pertsona bakoitzak egiten duena, adibidez, finantzak eramaten dituen pertsona, bezeroak eramaten dituenak, publizitatea eta sare sozialak eramaten dituenak (marketing), bidaiak eramaten dituenak. Emile enpresaren marketina eramango du, publizitatea eta sare sozialaz arduratuko da. Iزارo alderdi juridikoaz arduratuko da. Ariane bezeroak eramango ditu eta beraien beharrak aztertuko ditu. Ixone finantzak eramango ditu.

**Finantza-baliabideak:** mailegu bat eskatzea, kolaborazioa eta beste enpresekin elkartzea lortzeko dirua. Mailegu bat eskatuko dugu lehenengo alokairua ordaindu ahal izateko eta gure enpresa hasteko dirua behar dugu. Gero beste enpresekin elkartzean, turismoko enpresarekin eta hoteletako enpresarekin diru gehiago lortuko dugu. Guk gure dirutik ere jarriko dugu kapital minimo bat eta horrekin ere hasi ahalko gara.

